

AZTERKETA URTERAKO ARGIBIDEAK

2014.eko irailaren 11n

Elizbarrutiko V. Ebanjelizatze Egitasmoak (EEEk) nobedade bat jaso dau aurrekoaren ebaluaketa kontuan izanda: azken urteotako egitasmoen estiloari beste barik jarraitu beharrean, gaur egun Espirituak alkarte bakoitzari eta tokiko Eliza osoari egiten deusazan deiak aztertzea, nortzuk garan kontutan izanik. Asmo hori bideratzeko, EEEren lehenengo urtean, azterketa izango da gai nagusia. Horixe izan zan Elizbarrutiko Abade eta Pastoral Kontseiluen gogoeta eta proposamena Gotzainari, eta honek onartua. Lehenengo urte honetan egindakotik eta sortzen danetik abiatuz, Gotzain Kontseiluak ondorengo urteetarako argibideak eta eginkizunak zehaztuko ditu.

Azterketa prozesuari dagokiozan lehen ohar batzuk doaz ondoren, gidoia keta itaunketak bialdu aurretik.

1. Azterketa urte hau Egitasmoaren barruan sartzen da; ez da egitasmo biren arteko tartea. Egitasmoak tankera misiolaria izan gura dau: Jaikoaren bidera ateratzeko, bazterretara urtetzeko eta kristau alkartean alkarrizketa eta komunioa indartzeko. Guztion artean, zabal jokatzuz eta otoitz giroan, zera aztertu nahi dogu: Jainkoaren deiak gaur egun, bere agerpenak gizarte eta eliz egoera honetan, gure erantzunak, nahi doguna eta ahal doguna kontuan hartuz.
2. Azterketa prozesu honetan, nahi daben guztiek parte hartu daikee. Tokian tokiko arduradunek (talde ministerialak, pastoral taldeak, alkarte edo mugimenduetako arduradunek, kuriako arduradunek...) argitu beharko dabe parte hartzearen maila eta zabalkundea.
3. Azterketarako talde egonkorak behar dira, hau da, ibilbide osoa bete ahal izango dabenak, azarotik apirilera bitartean. Era berean, toki edo instantzia bakoitzean, azterketarako egunak zehaztu eta landutakoa jasoko daben arduradunak izendatu behar dira. Oso lagungarria da, datak ohizko ekintzen artean kokatzea eta agertzea.
4. Oso egokia da, azterketa prozesu honen arduradunek, kurtsoaren hasierarako (irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an) ardurakidetza eta azterketari buruz (*Corresponsabilidad y discernimiento*) eratutako tailerrean parte hartzea.
5. Azterketa gidatzeko, hiru bidalketa egingo dira (urrian, abenduan eta otsailean), bakoitzean pare bat itaunketa dirala. Gidoiotan, otoitzerako lagungarriak eta Aita Santuaren *Evangelii gaudium* idaztiko testuak ere eskeiniko dira. Atal bakoitzean landutakoaren laburpena bikarioari bialdu beharko jako.
6. Kristau alkarte osoak azterketa prozesu honetan parte hartu ahal izan daian, landutakoaren laburpena domekako Mezara datozanei zabaltzea komeni da.

Felix Alonso eta Angel M. Unzueta
Bikario Nagusiak